



BIZKAIKO ENTZUTETSUEN GALERIA:

kirolariak, artistak, idazleak

Zertan datoz bat Jesús Guridi musikaria, Teofilo Guiard kronikagilea, Pichichi edo Matilde Orbegozo olerkaria?

Erakusketa honetan jakingo dugu galdera horren erantzuna

Bilboko Euskal Museoak aukera eman nahi die bisitariei "Bizkaiko Entzutetsuen Galeria" izeneko erakusketa berria ikusteko. Lehenago, pertsona herrikoi eta kaletarrak egon ziren gure museoko aretoetan. Orain, berriz, kirolariek, artistek eta idazleek ikuspegi ederra eskainiko digute, XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran Hiribilduan zegoen kultura- eta kirol-bizitza nola piztu eta loratu zen jakiteko.

Bildumak hasieran zituen 239 pertsonaiekin, erretratuetan 68 pertsonaia agertzen dira, eta jarduteko esparru zabala hartzen dute barne. Haietako batzuk oso ezagunak dira jende guztiarentzat, eta beste batzuek, berriz, oso esparru zehatzetan dute ospea. Garai bateko Bilboko Hiribilduko bizitza kulturalerako protagonista izan ziren denak, eta berrikuntzaren bat egin zioten zegokien esparruari.

Pertsonaia hauek gure historiaren bilakaeran funtsezkoak izan diren elkarrean eta mugimenduen sorrerari lotuta daude, adibidez, hauei: Club Deportivo de Bilbao, Athletic, euskal antzerki lirikoa eta euskal margolaritza, Sociedad Bilbaina eta Club Marítimo del Abra.

Jesús Guridi gure garaian izan den euskal musikaririk handienetakoa izan da. Obra zabala utzi zigun, baina, gehienbat, berak egindako Mirentxu eta Amaia bi euskal opera handiak eta El caserío zarzuela ospetsua nabarmendu behar ditugu. **Rafael Moreno Aranzadi "Pichichi"** bere belaunaldiko jokalaririk onena izan zen askoren ustez. Berak sartu zuen San Mames futbol-zelaiaren historiako lehenengo gola, inaugurazio-egunean. **Teofilo Guiard** Bilboko kronikagileen artean nagusia eta Hiribilduko historiaren ikertzaile nekaezina izan zen. Lan hauek utzi zizkigun, besteak beste: Historia de la Noble Villa de Bilbao eta Historia del Consulado y Casa de Contratación de Bilbao. **Cándido Palomori** txirindulari masoia deitu zioten. Ez dakigu askorik bere lanbide-erloto jarduerari buruz, baina pertsonaia ospetsua izan zen kirol-arloan eta Bilboko kirol-elkarrean esparruan. Erakusketa honetan agertzen diren emakumeak gizonak baino gutxiago dira, baina, hala ere, daudenak gizonak bezain garrantzitsuak dira. **Matilde Orbegozo** andrea olerkaria izan zen, baina ez zuen libururik argitaratu. Bere lan poetikoak herriko egunkari eta aldizkari askotan agertu ziren, esate baterako, Irurac-bat, Euskalduna eta Euskal Herria argitalpenetan, eta, era horretan, zabalkunde handia lortu zuen jendartearen.

Pertsonaia batzuk aipatu ditugu, baina zerrenda areago zabalduko dugu ezinbestez azaldu behar diren izen batzuk emanda. Horra hor Angel Sopena, Felipe Serrate, Enrique Ibarreta, Angel Bilbao "Chiquito de Abando" eta "Cocherito de Bilbao" bezalako kirolariak. Horra hor Nicolás Ledesma, Iparraguirre, Anselmo Guinea eta Nati la Bilbainita bezalako artistak ere. Eta, azkenik, Miguel Unamuno, José de Orueta, Antonio Trueba, Emiliano Arriaga eta Alfredo Echave bezalako idazleak.

Haiek "kontatuko" digute nolakoa zen beren garaiko Bilbao hura, eta beren bizitzako zein oinatz dagoen bizirik oraindik, gaur egun.

Galeria Bilboko Udalaren jabetzakoa da, eta 1995. urtetik dago Museoan. Proiektu hau José Antonio eta Luis Lerchundi Siroitch anaien eskutik sortu zen, 1950. urtearen inguruan.

ERAKUSKETAREN FITXA

Izena: Bizkaiko Entzutetsuen Galeria: kirolariak, artistak, idazleak
Antolatzailea: Euskal Museoa. Bilbao.
Tokia: Euskal Museoko aldi baterako I. eta II. aretoak (beheko solairua)
Egunak: 2013-11-14 / 2014-03-16
Obra-kopurua: 69 olio-margolan (gizonen 65 erretratu eta andrazkoen 4 erretratu)
Argitalpenak: katalogoa
6 biografia doan deskargatu ahal izango dira web-orrian zehar eta QR kodearen bitartez erakusketa barruan

ALDI BEREAN EGINGO DIREN JARDUERAK

ERAKUSKETARA BISITA GIDATUAK

TALDEAK (Gehienez, 20 lagun).
Prezioa: 20€ (museorako sarrera ez dago barne).
Eguna eta ordua adostatu behar dira (astelehenak ez).
Derrigorrezkoa da aldeztatik erreserba egitea.

HAURRENTZAKO JARDUERAK

“PERTSONAIAREN BILA”

Informazio gehiago jasotzeko, Museoarekin harremanetan jarri mesedez.

LEHIAKETA

“AURKITU JATORRIZKO ERRETRATUA!”

Erakusketako erretratu batzuek euskal margolari ezagunen lanak irudikatzen dituzte. Esate baterako, Enrique Aldana biolin-jotzailearen erretratuaren oinarria Pancho Bringasen margolan bat da. Horietatik guztietatik, gutxienez hiru erretratu aurkituz gero, Museoko produktuen sorta baten zozketan sartuko zara. Bidali zure erantzuna press@euskal-museoa.org helbidera, edo aurkeztu Museoko harrera-lekuan.

KULTURA-IBILTEAK

“PERTSONAIAREN OINATZEN ATZEAN”

Hiribilduaren bisita gidatu honen bidez, erakusketako protagonisten eguneroko zereginen agertokia izan ziren lekuak zehaztu ahal izango ditugu: Instituto Vizcaino, Café Suizo, Kurding Club... Prestakuntza eta lanerako lekuak izan ziren horiek, aisialdi eta bilerak egiteko tokiak, garai hartako bizitza kulturalerako erreferentziak, eta, kasu askotan, gaur egun, oroimenean baino ez daude.

Egunak: 2013-12-19, 2014-01-23, 2014-02-20

Ordua: 17:00.

Talde murriztuak: Gehienez 15 lagun

Prezioa: 3 €

Derrigorrezkoa da aldeztatik erreserba egitea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

944.155.423

museoa@euskal-museoa.org / www.euskal-museoa.org

BISITARIENTZAKO ARGIBIDEAK

Asteartetik larunbatera arteko ordutegia: 11:00etatik 19:00etara. Igandeetan: 11:00etatik 14:00etara. Astelehenetan itxita

Sarrera orokorra: 3 €

Sarrera murriztua: 1,5 € (ikasleak)

Doako sarrera: 12 urtetik beherakoak eta erretiratuak.

Tel.: 944155423

www.euskal-museoa.org

museoa@euskal-museoa.org

